

EUSKERA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2019



Bilbao

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

ARTE GARAIKIDEA / AKADEMIA

MAR. 1 > 5 (ostr. > astr.)

Laagencia

Arte proiektuen bulegoa



Bogotáko Chapinero auzoan artearen eta hezkuntzaren arloko ikerketa eta prozesuak sustatzea xede duen **Laagencia** arte-proiektuen bulegoak Akademia programaren lehen saioa gidatuko du, martxoaren 1etik 5era, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon. Programa berri horren ardatza prestakuntza eta arte garaikidea dira, eta artista eta sortzaileei begira antolatu da, komisariotzaren eta lantegien esparruan kokaturik.

Laagencia arte-proiektu kolektibo bat da, eta 2010eko ekainean jarri zuten abian, Chapinero auzoan, kultura arloko esperimentaziorako eta sorkuntzarako gun bat sortzeko asmoz, modu informalean. Bere ekintzen bidez, jarduera artistiko eta eratzailari buruzko eztabaida bultzatzen du, lanerako askotariko estrategiak eta metodologiak esperimentatuz bitartekaritza-formatuak, lankidetzarako programa publikoak, auto-argitalpeneko ariketak eta beste pertsona batzuekin jarduteko modu alternatiboak proposatzeko.

Bere ikerketa propioaren eta Escuela de Garaje programa irekiaren bidez, Laagencia jakintza sortzeko formatuak eta jakintzaren zirkulaziorako bideak lantzea xede duten hainbat ekimen lokal, nazional eta nazioarteko asko bistaratzeko lanean ari da.

////////////////////////////////////

Martxoak 1 > 5
Osteguna > astearta

Lantegia 1


Sarrerak: Infopuntua eta
www.azkunazentroa.eus

////////////////////////////////////

 www.laagencia.net

 [@porlosagentes](https://www.facebook.com/porlosagentes)

 [@porlosagentes](https://twitter.com/porlosagentes)

 [xlosagentes](https://www.instagram.com/xlosagentes)